

Udal talde politikoaren iritzia



KONPROMISOA: GETXO, BALIO-SORKUNTZAREN ETA EKONOMIA-BERRIKUNTZAREN ERDIGUNE

Getxoko udal-gobernuaren zeharkako lanaren ardatz bihurtu den konpromisoa da, eta Getxoko etorkizuneko plangintzaren proposamenaren ere ikusi dugu. Besteak beste, udalerriko hazkuntzarako eta proposamen jasagarriarekiko inplikazio eta profesionaltasun geroz eta handiagoaren erakusgarri dira honako hauek: ekonomia-sustapena; Getxon bizitzeko eta lan egiteko espazioa eta aukerak; Getxoko emakume eta gizonen garrantzia nabarmentzeko bultzada, prestakuntza bikainak eskainiz; eta merkataritza, ostalaritza nahiz turismoa. Getxon dugu hori guztia.

Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Amaia Agirre alkateak konpromisoa hartu dute Getxo ideien, berrikuntzaren eta sormenaren laborategi bihurtzeko, dauzkan sorkuntza-aukerengatik eta horretarako prestatuta dauzkan pertsona nahiz erakundeengatik.

Konpromiso hori gure hauteskunde-programan ageri da: "Jarduera ekonomiko bultzatuko duena kirolaren, osasunaren, kulturaren, merkataritzaren, turismoaren eta zerbitzu profesional aurreratuen inguruan. Ekintzailetzaren eta gizarte-berrikuntzaren aldeko apustu argia, partaidetza



eta kidesuna indartu eta jasagarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa sustatzen dituena".

Eta bete egin dugu: Getxo Itxas Hub (Kirol Portuan) eta Getxo Sormen HUB (Urgull kalean): kultura- eta sormen-industriak garatzea; eta teknologiak garatzea kirolaren nahiz ongizatearen industrietan, eta kultura-, kirol- eta itsas-turismoaren industrietan. Horren ildotik, aipatzekoa da HAPO berriari esker

etorkizunean izango dugun Martiturri enpresa-parkearen espazioa, bai eta goimailako enpresa-inguru aurreratua izateko edukiko ditugun aukerak ere.

Honela betetzen ditugu konpromisoak: enpresa eta pertsona ekintzaileei programak eskaintzen dizkiegu; berariazko aholkularitza emateko ekimenak bultzatzen ditugu; lankidetzak eta sinergiak ahalbidetzen ditugu; ikerketa eta unibertsitateak barne hartzen dituz-

ten proiektuak bilatzen ditugu; eta Getxon daukagun balio handia garatzeko bidea eratu duen sarea osatu dugu. Konpromiso hori merkataritza, ostalaritza eta turismoaren arloetan jorratu izan dugu, eta kulturari nahiz itsasoari lotutako sormeneko nahiz abangoardiako arlo guztietan sakontzen jarraitzen dugu. Balio-sorkuntzan nahiz ekonomia-berrikuntzan erreferente den Getxo sortzeko konpromisoa.



PARKE BERDE BAT BIOTZ ALAI PLAZAN



Algortako Biotz Alai plazak kokapen paregabea du Algortako erdigunean eta ia 1.400 m²-ko azalera du; alabaina, Getxoko Udalak abandonatuta eta aprobetxatu barik dauka. Getxoren PP alderdiko kideok proposatu nahi dugu plaza hori 1.400 metro karratuko azalera duen berdegune bihurtzea, eta komun publiko eta gaueko itxiturak izatea bertan, getxoxtar

guztiak gozatu dezaten; hori guztia, plaza hori Algorta erdiguneko birrika berde izugarria izateko eta gune horretako segurtasuna areagotzeko helburuarekin. Bizikidetzari, gizabide-erari, zaratei eta botiloiei lotutako arazoak gorantz doaz etengabe. Hala ere, EAJK eta gainerako alderdiek ez dute proposamena babesten. #esnatuGetxo



EUSKARAREN EGUNAK: URTARRILAREN 1ETIK ABENDUAREN 31RA

Euskaraldian zehar poztu gara aurrean txapa jarritako kidea izan dugunean, euskaraz lasai hitz egin ahal izan dugulako, egoera deserosoen beldur izan gabe.

Getxoko Euskaraldiko aurkezpenaren ahalduzko eskolako kideek proposatu ziguten ariketan hainbat gogoeta egin genituen: zer egin beharko genuke norbaitek, euskaraz dakien arren, gaztelaniaz erosoago sentitzen dela esaten digunean? Egoera deserosoak sahisteko gaztelaniaz hitz egin? Zergatik pentsatzen dugu euskaldunok gu gara egoera deserosoa sortzen dugunok gure hizkuntza eskubideak defendatzeagatik? Zilegi da gu euskaraz erosoago sentitzen gara esatea eta elkarriketa elebidunean jarraitzea? Euskararen aldeko apustu egiteak berebiziko garrantzia du eus-

karaz bizi nahi badugu.

Horregatik, EH Bilduk Udal Gobernuari eskatuko diogu euskararen aldeko politika zehatzak har ditzala. Esaterako, Euskararen alde lan egiten duten elkartei diru-laguntzak handitzeko (aurrekontuetan ez da inolako igoerarik egon, elkarteek inflazioari aurre egin ahal izateko), Udal langileek euskaraz artatu gaitzela bermatzeko, Kultur Etxearen tailerretan euskarazko eskaera anitza eskaintzeko eta tailer horiek aurrera ateratzeko, errentagarriak ez direla aitzakiatzat jarri gabe. Hau da, egunerokoan euskaraz bizi ahal izateko oztupoak arintzen lagun gaitzela eta euskaraz egunero bizitzeari ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekin diezaiola.



A25, INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO KONPROMISOA

Beste urte batez, A25 egunaren harira, Udaleko Berdintasun Zerbitzuak, zeina PSE-EE alderdiak kudeatzen baitu, **indarkeria matxisten gaineko sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpaina bultzatu du.** "Nor izango da hurrengoa?" kaleko informazio-ekintza da, interaktiboa eta eragina sortzeko, eta horren bidez azpimarratu dugu ez dela biktimaprofil zehatzik existitzen: **edozein emakume jasan dezake indarkeria matxista, emakume izate hutsagatik**, eta gure saltoki-sarea eta herritarrak oro har sartu ditugu. Kanpaina honen bitartez, **2022an eraildako emakumeen bizitza nabarmendu** nahi izan



dugu; izan ere, zenbaki bakoitzaren atzean **bizitza-proiektuak, ilusioak, ametsak, familia, lagunak eta abar dituen pertsona** dago.



A25: EZ DAUDEN GUZTIENGATIK

Aurreko ostegunean, A25aren bezperan, lortu genuen aho batez onesten indarkeria matxistaren emakume biktimen omenezko horma-irudia egitea Getxon. Keinuak garrantzitsuak dira, baina are garrantzitsua goak dira ekintzak. Hori dela eta, 2023ko aurrekontuei dagokienez aurkeztu dugun zuzenketa batean proposatu dugu zaintzen diagnostiko bat egitea, LGTBI behatoki

bat sortzea eta hiri irisgarri eta lagunkoiaren mapa egitea, zeinetan emakumeek nahiz kolektibo zaurgarriak hartuko baitute parte, indarkeriarik gabeko espazioak izan ditzagun. Izan ere, A25 egutegiko egun bat da, baina indarkeria matxista egunero dago presente, eta emakume guztion bizitza baldintzatzen eta kondentzen du. elkarrekinpodemos@getxo.eus